

3. gaia: FINANTZA FUNTZIOA

3.0. Oinarrizko kontzeptuak

3.1. Finantzaketa-iturriak

3.2. Balantzea eta ustiapen-kontua

3.3. Finantza-analisia

3.4. Kapital-kostua


3.5. Inbertsioen analisia

3.6. Errentagarritasuna

1

3.0. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

3.0.1. Fluxu fisikoa eta fluxu monetarioa



3.0.2. Oinarrizko kontzeptu ekonomiko - finantzario batzuk :

- Diru Sarrera (ingreso) \neq Kobraketa
- Gastua \neq Ordainketa
- Gastua \neq Inbertsioa



- Egoera ekonomikoa \neq Egoera finantzieroa
- Aktiboa: Jabetza
- Pasiboa: Zorrak



3.0.2. Kontabilitatea

Informazioa jaso eta tratatzen duen sistema formalizatu eta estandarizatu bat da. Informazio honen bidez jakin ditzakegu:

- Enpresaren ondarea une jakin batean.
- Enpresak lortutako emaitzak epe jakin batean.
- Emaitza horien zergatiak
- Aurreikusitako emaitzekiko desbiderapenak.
- Desbiderapen horien zergatiak



Kontabilitaterik gabe ez dakigu non gauden, ez eta nora goazen.

5


Kontabilitate motak:

Kontabilitate analitikoa, kostuena edo barne-kontabilitatea

Aurrekontu kontabilitatea

Kontabilitate orokorra, finantzarioa edo kanpo-kontabilitatea

6



3.1. FINANTZAKETA-ITURRIAK

Finantzaketa-iturriak enpresaren ekoizpen-jarduerarako behar diren input edo sarrerak erosteko erabiltzen diren finantza-baliabideen jatorriak dira.

Finantzaketa-iturrien bilduma **PASIBO** izenpean agertzen dira enpresaren Egoera-balantzean.

3.1.1. Kontzeptu eta sailkapena

Finantzaketa-iturriak irizpide askoren arabera sailka daitezke:

Irizpide	Motak
Jabetzaren arabera	Baliabide propioak Besteren baliabideak - Zuzenak - Zeharkakoak
Galdagarritasunaren (kobratzeko epearen) arabera	Kapital iraunkorrak Pasibo zirkulatzailea

9


3.1.2. Autofinantzaketa edo barne-finantzaketa

Mantentzeko

Aberasteko

Amortizazioa:	Erreserbak
Aktibo finkoaren balio-galeraren adierazpen kontablea. Aktibo finkoan inbertitutako diruak berreskuratu diru sarreretatik kenduz	Akziodunen artean banatzen ez ditudan mozkinak. Enpresan gelditzen dira ondarea handitzeko eta enpresa egonkortzeko

10



3.1.3. Akzio eta obligazioen jaulkipena

Enpresen kapital soziala hainbat partetan banatzen da, eta parteei akzioak esaten zaie. Akzio bakoitzak, kapital sozialaren zati bat ordezkatuko du eta, beraz, enpresaren ondarearen zati proportzionala dira. Akzioa bakoitzak kapital sozialaren zati bat ordezkatzen du, zati horri Balio Nominala deitzen zaio.

Akzio guztiek balio nominala berdina dute, eta beraz:

$$\text{Kapital Soziala} = \text{Akzioen kopurua} * \text{Balio nominala}$$

12

Obligazioa, finantzaketa lortzeko edozein motatako enpresak jaulkitako balore-titulu bat da, jaulkipenaren zati alikuota bat ordezkatzeko duena. Honen bitartez obligazioaren titularrak, obligaziodunak, titulua amortizatzen den egunean printzipala berreskuratzeko eta interesak kobratzeko eskubidea du.

13

Akzio eta obligazioen arteko desberdintasunak

- Ordainsaria
- Diru-itzultzea
- Arriskua
- Errentagarritasuna
- Kudeaketan partehartzea

14

3.1.4. Banku-finantzaketa

Epe luzera bi dira ohikoenak:

Kreditua Finantza-erakundeak epemuga jakin batekin diru kopuru mugatua jartzen du enpresaren eskura. Epemuga egunean enpresak erabilitako diru kopurua (saldo zorduna) itzuli beharko du.

Mailegua Finantza-erakundeak diru kopurua bezeroaren eskura jartzen du eta bezeroak amortizatzeke dagoen kantitatearen araberako interesak ordaindu behar izango ditu, benetan erabilitako kantitatea zenbat den berdin delarik.

15

Leasing

Erosteko eskubidea eskaintzen duen errentamendu mota.

Honen bitartez, enpresa batek beste enpresa bati ondasun bat erabiltzeko eskubidea uzten dio, ondasunaren kudeaketan parte hartu gabe. Erabiltzaileak kontratu zehaztu batean ezarritako betebeharrak bete beharko ditu erabiltzeko eskubide horren truke.

Leasing-ak, eskuarki, erosketa klausula bat izan ohi du, enpresaburuaren alde, errentamenduaren aldia bukatzen denerako.

16

3.1.5. Hornitzaile-kreditua

Enpresek, eskuarki, ez dituzte lehengaiak eta input-ak eskura ordaintzen hornitzaileek ordainketa atzeratzeko aukera ematen ohi dutela eta. Horrela, ordainketa geroratua enpresek erabiltzen duten finantzaketa mota erabilienetakoa bilakatu da.

Zordunketa: hornitzailearen faktura besterik ez dago

Truke-letra: Saltzaileak prestatzen du truke-letra (igorleak) eta eroslearengana bidaltzen du (igorriarengana). Bere epemugan letra aurkezten duen pertsonari (hartzaileari) ordaintzera hartzen azken hau

17

3.2. BALANTZEA ETA GALDU IRABAZIEN KONTUA


18

Balantzea ekitaldiaren bukaeran enpresaren egoeraren argazki bat erakusten digun dokumentua da. Dokumentu estatikoa da eta informazio finantzario erakusten digu, bestean beste, enpresaren ondasun, eskubide eta erantzunbeharren azalpena.

Aktiboa	Pasiboa
Ondasunak (enpresak duena)	Zorrak (enpresak dituen zorrak)
Eskubideak (enpresari zor diotena)	Kapital (jabeen ekarpenak)

Edo beste modu batean esanda


19



Egoera balantzea beti:

- Une zehatz bati buruzkoa da (data zehatza du)
- Moneta unitatetan adierazten da
- Aktiboa = Pasiboa
- Kontabilitate Plan Orokorreko arauak jarraitzen ditu

20



Likidezia: ondasun bat dirutan bihurtzeko duen erraztasuna

Galdagarritasuna: Pasiboko zorrei erantzuteko behar den arintasuna edo presa.

21

PYME baten BALANTZEA

AKTIBO

A) AKTIBO EZ KORRONTEA

- I. Ez material ibilgetua.
- II. Material ibilgetua.
- III. Higiezin inbertsio.
- IV. Taldeko enpresetan inbertsioak.
- V. Epe luzeko inbertsio finantziarioak.
- VI. -Aktibo metatuak

B) AKTIBO KORRONTEA

- I. Izakinak
- II. Komertzial zordunak eta kobratzeko beste kontuak.
 1. Bezeroak.
 2. Akziodunak (bazkoideak) eskatutako ordainketengatik.
 3. Beste zordunak.
- III. Epe motzeko inbertsioak taldeko enpresatan.
- IV. Epe motzeko inbertsio finantziarioak.
- V. Epekaketak.
- VI. Akzioak, Bankua, kk, kutxa

AKTIBO TOTALA (A+B)

22

PASIVO

A) ONDARE NETOA

- A-1) Fondo propioak.
 I. Kapitala.
 1. Eskrituratutako kapitala.
 2. (ez eskatutako kapitala).
 II. Jaulkitutako primak.
 III. Erreserbak.
 IV. (Ondasun propioetako akzioak).
 V. Beste ariketetako emitzak.
 VI. Bazkideen beste aportazioak.
 VII. Emaidza.
 VIII. (kontuko dibidendoa).

A-2) Subentzio, emateak.

B) PASIBO EZ KORRONTEA

- I. Epe luzeko probizioak.
 II. Epe luzeko zorrak.
 1. Bankuekin zorrak.
 2. Epe luzeko beste zorrak.
 III. Taldeko enpresekin Epe Luzeko zorrak
 IV. Geroratutako zergengatikoko pasiboa

C) PASIBO KORRONTEA

- I. Epe motzeko hornikuntzak
 II. Epe motzeko zorrak
 1. Bankuekin zorrak
 2. Epe motzeko beste zorrak.
 III. Taldeko enpresekin Epe motzeko zorrak
 IV. Hartzekodun komertzialak.
 1. Hornitzaileak.
 2. Beste hartzekodunak
 V. Epekaketak

ONDARE GARBIA ETA PASIBO TOTALA (A+B+C)

23

Balantzearen ondare masak

	Aktiboa	Pasiboa
Aktibo ez korrontea	Ibilgetua	Ondare netoa
Aktibo Korrontea	Izakinak	Pasiboa ez korrontea
	Bihurgarria	
	Erabilgarria	Pasibo korrontea

24

3.3. OREKA FINANTZIEROA

Maniobra Fondoak adierazten digu enpresa batek epe motzeko zorrak ordaintzeko gai izango den ala ez.

Aktibo ez korrontea		Ondare netoa
	M.F.	Pasibo ez korrontea
Aktibo korrontea		Pasibo korrontea

25

AKTIBOAREN RATIOAK

10%-30%

$$\text{Altxortegi ratioa} = \frac{\text{Erabilgarria}}{\text{Pasibo korrontea}}$$

80%-100%

$$\text{Berehalako likidezia} = \frac{\text{Erabilgarria} + \text{Bihurgarria}}{\text{Pasibo korrontea}}$$

1,5-2

$$\text{Likidezia orokorra (*)} = \frac{\text{Erabilgarria} + \text{Bihurgarria} + \text{Izakinak}}{\text{Pasibo korrontea}}$$

(*): Epe motzeko Kaudimena

26

PASIBOAREN RATIOAK

1,5-2

$$\text{Berme-ratioa} = \frac{\text{Aktiboa}}{\text{Besteren baliabideak}}$$

0,5-2

$$\text{Zorpetze-ratioa} = \frac{\text{Besteren baliabideak}}{\text{Diru propioak}}$$

27

Galdu irabazien kontua enpresa batek ekitaldi batean izandako sarrerak eta egindako gastuak, eta baita lortutako emaitza ere (irabaziak edo galerak), erakusten duen agiri ekonomiko dinamikoa da.

28

GALDU IRABAZIEN KONTUA

Salmentak	
-Materialeen gastua -Pertsonalan gastua -Kanpoko lanak -Beste gastuak -Amortizazioak	
A) USTIAPENENKO EMAITZA	BAlI
+ Finantzal sarrerak - Finantzal gastuak	
B) FINANTZAL EMAITZA (13+14+15+16+17)	
C) ZERGEN AURREKO EMAITZA (A+B)	BAI
- Emaitzen gaineko zergak.	
D) EMAITZA NETOA (C+18)	Beneficio neto

29

3.4. KAPITALAREN KOSTUA

Enpresak behar duen baliabide bakoitzak finantziazio kostu bat suposatzen du. Kalkulatzeko behar den formula ondorengo hau da:

$$M = S_0/(1+ K_d)^1 + S_1/(1+ K_d)^2 + S_2/(1+ K_d)^3 + \dots S_n/(1+ K_d)^{(n+1)}$$

M da enpresak jasotako dirua finantziazio moduan (maileguan eskatutako kopurua)

S da epe bakoitzean ordaindu behar den kuota

K_d maileguaren tasa

30

Oro har, enpresa batek finantzaketa iturri desberdinak ditu, bakoitza kostu desberdin batekin. Kasu hauetan interesgarria izan daiteke batezbesteko kostu haztatua^(*) kalkulatzeko.

BATAZBESTEKO KOSTU HAZTATUA

$$BKH = \frac{(M_1 * C_1) + (M_2 * C_2) + \dots + (M_n * C_n)}{M}$$

(*) Haztatua=ponderatua

31

3.5. INBERTSIOEN HAUTAKETA

Inbertsio bat zera da: oraingo baliabide finantzario batzuen erabilera etorkizuneko diru sarrera batzuen itxaropenaz.


Inbertsioaren aldagaiak ondorengo hauek dira:

- Lorpen kostua
- Iraupena
- Kobratzeak
- Ordainketak
- Hondar balioa

32

Kaxa-fluxuen adierazpena

dirua



denbora →

33

Inbertsiorik onena hautatzeko metodoak

1. Pay Back

Inbertsio bat berreskuratzeko behar den denbora. Kalkulatu da kaxa fluxuak batuz hasierako ordainketa berdindu arte.

Arazoak:

1. Ez du kontuan hartzen diruak denborarekin balioa galtzen duela
2. Ez du kontuan hartzen proiektuak emandako irabaziak berreskuratze epearen ondoren

34

2. BEN(*) edo Balio Eguneratu Netoa

Inbertsio baten balio eguneratu garbia, ordainketa eta kobrantzen balio eguneratuen arteko diferentzia da.

$$BEN = -D + \frac{Q_1}{1+k} + \frac{Q_2}{(1+k)^2} + \frac{Q_3}{(1+k)^3} + \dots + \frac{Q_n}{(1+k)^n}$$

$BEN > 0$: Inbertsioaren hazkuntza k baino handiagoa da. Inbertitu egin behar da

$BEN < 0$: inbertsioaren hazkuntza k baino baxuagoa da. Ez da inbertitu behar

VAN(*) Valor Actual Neto

35

3. BET edo Barneko Errendimendu Tasa

Inbertsio baten errentagarritasuna adierazten du.

Kalkulatzeko, $BEN = 0$ egiten da eta deskontu tasa askatasunez fluktuatzen uzten da.

$$0 = -D + \frac{Q_1}{1+i} + \frac{Q_2}{(1+i)^2} + \frac{Q_3}{(1+i)^3} + \dots + \frac{Q_n}{(1+i)^n}$$

$BET > K$: inbertsioa interesgarria da, errentagarritasuna kapitalaren kostuaren gainetik baitago.

TIR(*) Tasa Interna de Rendimiento

36

3.6. ERRENTAGARRITASUNAREN AZTERKETA

1. Errentagarritasun ekonomikoa :

Lortutako irabaziak eta egindako inbertsioaren arteko erlazioa

$$\text{Errentagarritasun ekonomikoa} = \text{ZIAE}^{(*)} / \text{Aktiboa}$$

Zergatik erabiltzen da ZIAE eta ez Irabazi Garbiak?

Zein da bere balio minimoa?

(*) Zerga eta interes aurreko etekina=BAII- Beneficio antes de intereses e impuestos

37

Errentagarritasun hau bi ataletan banatu daiteke

$$\text{Errentag.} = \frac{\text{Salmentak}}{\text{Aktibo totala}} \times \frac{\text{ZIAE}}{\text{Salmentak}}$$

Aktiboaren errotazioa

Salmenten marjina

Errentagarritasuna
igotzeko

Gehiago saldu
Aktiboa jaitsi

Garestiago saldu
Kostuak jaitsi

38

2. Errentagarritasun finantzarioa :

Irabazi garbiak eta Enpresaren Fondoan
arteko erlazioa

$$EF = \text{Irabazi Garbiak} / \text{Enpresaren fondoak}$$

Jabeentzat, enpresaren adierazlerik garrantzitsuena da, irabazi garbiak eta egindako inbertsioa konparatzen baitu.

39

Palanka efektu operatiboa

Salmenten aldaketen eragina enpresaren irabazietan.

Enpresaren koste egitura menpe dago (Koste Aldakorrak / Koste Finkoak)

$$A_o = \frac{\Delta I / I}{\Delta S / S}$$

Donde

$$I = S \times (Sl - K_a) - KF$$
$$\Delta I = \Delta S \times (Sl - K_a)$$

40

Gero

$$A_o = \frac{\Delta S (Sl - K_u) / S (Sl - K_u) - KF}{\Delta S / S}$$

Simplifikatuz

$$A_o = \frac{S (Sl - K_u)}{S (Sl - K_u) - KF}$$

Berdina dana

$$A_o = \frac{S.m}{S.m - KF}$$

41